



**GAZTELANIATIK EUSKARARA ETA EUSKARATIK GAZTELANIARA ITZULTZEKO ZERBITZUA
BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAN**

3. DOKUMENTUA

PRESKIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN KONDIZIO-AGIRIA

1.- SARRERA

Euskara eta gaztelania dira Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak. Hori dela eta, erakunde erkideek bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatu behar dute, eta Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek emandako arau-xedapen eta ebazpen ofizial guztiek bi hizkuntzetan idatzita egon behar dute publizitate ofiziala egin behar denean.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak behar diren neurriak hartzen eta behar diren bitartekoak arbitratzen ditu herritarrek eskubide hori baliatzen dutela bermatzeko, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 6. artikuluan ezarritakoaren arabera eta Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren aurreikuspenekin bat etorritik.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatze aldera, azpiegitura egoki bat sortu du, partzuergoari berari aplikatu beharreko arau-esparruan ezarritakoarekin bat etorritik eta euskararen erabilera normalizatzeko indarrean dagoen planari jarraikiz. Azpiegitura hori, beste eragile batzuen artean, euskarazko eta gaztelaniazko kanpoko itzulpen-zerbitzu batek osatzen du, eta helburu horixe du lehiaketa honen lizitazioak.

2.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da gaztelanitik euskarara eta euskaratik gaztelaniara itzultzeko zerbitzua ematea Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari, baita haren agiri itzulien berrikuspen gramatikala egitea ere.

3.- LANEN DESKRIBAPENA

Itzulpen-eskaerak

Partzuergoak normalean posta elektronikoz edo beste edozein bitarteko digitalez helaraziko dizkio itzuli beharreko testuak itzulpen-enpresari, eta enpresa horrek itzulita igorriko die posta elektronikoz, bai artxiboa bidali duen pertsonari, bai kontratuaren arduradunari.

Entregatzeko modua

Itzulpen-enpresak une oro errespetatu beharko du itzulgaiaren formatua, eta jaso duen formatu berean bidali beharko du itzulpena. Bidalitako testuaren zati bat bakarrik itzuli behar bada, Partzuergoko langileek kolore berezitan markatuko dute itzuli beharreko zatia. Itzulpen-enpresak markatutako tokian txertatuko du itzulitako testua.

Erakunde irudia

Itzulpen guztietan errespetatuko da gaztelaniaren eta euskararen tipografia, Nortasun Bisual Korporatiboaren Eskuliburuan jasotakoari jarraikiz. Errespetatzekoa izango da, halaber, eskuliburuan zerrendatutako instalazioen izendapenari buruzko irizpidea. (I. ERANSKINA).

Hizkuntza-jarraibideak

Itzulpenak egiteko, kontuan hartuko dira Euskaltzaindiaren arauak eta Partzuergoaren

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planean ezarritako hizkuntza-irizpideak. Itzulpenek hizkuntzaren erabilera ez-sexista bermatu beharko dute.

Lanen kalitatea

Enpresa adjudikaziodunak itzulita, zuzenduta eta berrikusita entregatuko ditu lanak, eta ez dute izango akats mekanografiko, tipografiko, linguistiko edo estilistikorik, ezta formatu, itzulpen, ulermen eta aurkezpenarekin loturikorik ere. Lana presazkoa izatea ez da hartuko, inola ere, kalitate falta justifikatzeko arrazoitzat.

4.- ENTREGATZEKO EPEAK ETA PREZIOA

Partzuergoko langileek adieraziko dute itzulpena jasotzeko epea. Enpresa adjudikaziodunak konpromisoa hartuko du itzulpenak eskatutako epean entregatzeko.

Enpresa lizitatzailleek beren proposamenean adieraziko dute zer epetan egingo duten itzulpena, bai eta itzulitako hitz bakoitzeko prezio unitarioa ere, zeina gehienez ere 0,0866 euro izango baita itzulitako hitz bakoitzeko (BEZik gabe).

Alde horretatik, kontuan hartu behar dira alderdi hauek:

- Enpresa adjudikaziodunaren kontura izango dira bere jardunean sortzen zaizkion mota guztietako gastuak.
- Eskainitako prezio unitarioak kontratakoak izango dira, eta, beraz, horietan sartuta egongo dira irabaziak, karga sozialak, gastu orokorrak, zergak eta abar. BEZa izango da salbuespena, zerga hori zuzenean aplikatuko baita ordaintzeko.

5.- ZERBITZUAREN JARRAIPENA

BBUPek behar diren neurriak ezarri ahalko ditu egindako zerbitzuak kontrolatzeko eta justifikatzeko.

6.- ENPRESA LIZITATZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Enpresa lizitatzailleek jarduera eta antolaketa propio eta egonkorra izan beharko dute, eta beren jarduera garatzeko behar dituzten bitartekoak izan beharko dituzte.

Era berean, laguntza-telefono bat aurkeztu beharko dute bulego-ordutegietatik kanpo premiazko itzulpenak egiteko.

7.- BALIABIDE MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK

Sektore publikoko erakundeentzat itzulpen-lanak egiten esperientzia egiaztatua daukaten langileek eskainiko dituzte itzulpen-zerbitzuak.

Enpresa adjudikaziodunak solaskide kualifikatu bat izendatuko du kontratu honetan eragiten duten itzulpen- eta zuzenketa-lanen inguruko edozein gorabehera konpontzeko.

Enpresa adjudikaziodunak zerbitzua emateko behar diren baliabide materialak izan beharko ditu.

8.- KONFIDENTZIALITASUNA

Enpresa adjudikaziodunak bermatu egin beharko ditu itzultzeko eta/edo zuzentzeko jasotzen dituen testuen zaintza eta konfidentzialtasuna. Hala, errespetatu egin beharko du kontratua gauzatzeagatik lortzen duen informazioaren konfidentzialtasuna. Lan guztiak Partzuergoaren jabetzakoak izango dira. Haren berariazko baimenik izan ezean, enpresa adjudikaziodunak ezingo du erabili inolako informaziorik.

9.- DATU PERTSONALAK BABESTEA

Zerbitzua behar bezala gauzatzeko behar diren datu pertsonalak BBUPen itzulpen-zerbitzua ziurtatzeko baino ez dira erabiliko, eta ez beste zernahi helburutarako.

Horretarako, adjudikaziodunak zorrotz bete beharko du datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudia, eta ezin izango dizkie laga datu horiek kontratua gauzatzearekin zerikusirik ez duten hirugarrenei. Halaber, tratamenduaren arduraduntzat hartuko da, eta zorrotz bete beharko ditu datuak zaintzeko betebeharrak eta indarrean dagoen araudiaren arabera kargu horri dagozkion gainerako baldintzak.

Alde horretatik, enpresa adjudikaziodunak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko du, zeinean bermatuko baitu babestuko dituela itzulpen-zerbitzua egiteko ematen zaizkion datu pertsonalak. Era berean, Datu Pertsonalak Babesteko Lege Orokorrearekin loturiko klausulak sinatu beharko ditu, zeinak kontratuaren dokumentazioari atxikita egongo baitira.

Bilbo, 2024ko abenduaren 18a

Langileen Arloko arduraduna

Maria Victoria Sedano Ugarte